

ZARAUTZEN BAKARRIK BIZI DIREN ETA 75 URTE EDO GEHIAGO DITUZTEN ADINEKO PERTSONEN IKERKETA

Behin Betiko Txostena
(Erref. E4731 001)

2019ko Urtarrila

ZARAUTZKO UDALA

Berrikuspen orria

Zarauzko Udala

Zarauzko Udala

Zarautzen bakarrik bizi diren eta 75 urte edo gehaigo dituzten adineko pertsonen ikerketa

(Erref. E731 001)
Donostian, 2019

Laura Gallok eta María López ek eginda

Félix Gorospek onartua

Sinadura:

Berrikuspen Taula

Bertsio znbk.	Data	Berrikuspenaren deskribapena
001	2019/01/24	Behin betiko txostena

AENOR ER-0563/2001 GA-2001/0044 SST-0131/2010 IQNet ISO 9001 ISO14001 OHSAS 18001

Aurkibidea

1. Sarrera eta aurrekariak 8

1.1. Sarrera 10

1.1.1. Txostenaren aurkezpena 10

1.1.2. Azterlanaren metodologia 11

1.2. Gizarte Zerbitzuetatik adinekoei eskaintzen zaien arreta 15

1.2.1. Araudi-esparrua 15

1.2.2. Zarautzeko Adinekoei zuzendutako Gizarte Zerbitzuak 18

1.2.3. Zarautz Lagunkoia 21

2. Ondorio nagusiak, laburtuta 23

2.1. Ondorioak 24

2.2. Adierazleen laburpen-taula 27

3. Zarauzko adinekoen biztanleria 29

3.1. Adineko pertsonen kuantifikazioa 30

3.2. Adinekoen populazioaren ezaugarritzea 31

3.3. Mendekotasuna duten adinekoak 36

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko populazioaren kuantifikazioa 38

4.1. Bakarrik erroldatutako populazioaren kuantifikazioa 39

4.2. Bakarrik bizi diren herritarrak non bizi diren 40

4.3. Erabiltzaileak eta erabiltzaileak ez direnak 44

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak 48

5.1. Elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak 49

5.2. Egoera kognitiboa eta osasun-egoera 50

5.2.1. Osasun-egoeraren balorazioa 50

5.2.2. Eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna 54

5.3. Harremanei dagokien egoera 58

5.3.1. Harreman pertsonalak 58

5.3.2. Parte-hartzea gizartean eta komunitatean 59

5.4. Ongizate emozionala 61

5.5. Ongizate materiala 63

5.5.1. Etxebizitzaren egoera 63

5.5.2. Sarrera maila 65

5.6. Bizi-kalitatearen balorazio orokorra 67

6. Gizarte Zerbitzuen ezagutza eta balioespena 69

6.1. Arreta emateko baliabideen inguruko ezagutza eta balorazioa 70

6.1.1. Arreta emateko baliabideen inguruko ezagutza 70

6.1.2. Arretarako baliabideen erabilera 71

6.2. Arreta jasotzeko baliabideen beharrak eta eskaria etorkizunean 73

7. Jarduera-gomendioak 75

A. Eranskina BARRUTIAK ETA SEKZIOAK 78

Aurkibidea

Taulen aurkibidea

1.1 taula Unibertsoaren eta 2018. Urtean Zarautzeko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkestaren laginaren distribuzioa 12
1.2 taula Landa-lanaren emaitza 13
1.3 taula Adinekoentzako arreta arlo publikotik 16
2.1 taula Zarauzko adinekoen egoera soziala erakusten duten adierazleen laburpen-taula 27
3.2 taula 75 urte edo gehiagoko Zarauzko biztanleria adin multzoka 2017 31
3.3 taula Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako zahartze eta gain-zahartzearen erakuslea 2017 33
3.4 taula Zarautzeko menpeko biztanleen bilakaera, 2011-2017 33
3.5 taula Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako adineko biztanleen inguruko adierazleen laburpena, 2017 35
3.6 taula Menpekotasun balioespena duten pertsonak, adin multzoka eta sexuka 36
3.7 taula 74 urtetik gorako pertsonak, menpekotasun maila sexuka 37
4.1 taula Zarautzen soilik erroldatutako 75 urtetik gorakoen biztanleria 39
4.2 taula Bakarrik bizi diren adineko biztanleriaren distribuzio adin multzo eta sexuka. 40
4.3 taula Bakarrik bizi diren Zarauzko adineko biztanleria Barrutia eta sekzioka 41
4.4 taula Bakarrik bizi den adineko biztanleriaren banaketa barrutia eta sexuaren arabera 43
4.5 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa adinaren arabera 44
4.6 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa sexuaren arabera 44
4.7 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa barrutiaren arabera 45
4.8 taula Bakarrik bizi diren Zarauzko adineko biztanleriaren artean erabiltzaile eta erabiltzaile ez diren pertsonen kokapena barruti eta sekzioka 47
5.1 taula Osasun egoeraren batez besteko balorazioa 51
5.2 taula Bisitaren maiztasuna osasun zerbitzura 52
5.3 taula Osasunarekin erlazionaturiko hauskortasun adierazleak 54
5.4 taula Egunerkotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak egiteko gaitasuna 55
5.5 taula Egunerokotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak egiteko gaitasuna 56
5.6 taula Egunerokotasuneko ekintza instrumentalak egiteko gaitasuna 57
5.7 taula Adineko pertsonen harreman pertsonalen aldizkakotasuna 58
5.8 taula Harreman pertsonalekin erlazionatutako hauskortasun adierazleak 59
5.9 taula Parte-hartze sozial eta komunitarioaren balioespena 60
5.10 taula Egoera emozionalaren balioespena 62
5.11 taula Etxebizitza edukitzaren erregimena 63
5.12 taula Etxebizitza aldatzeko edo berritzeko beharra 63
5.13 taula Etxebizitza eta ingurunearen egoeraren balioespena 64
5.14 taula Udal Gizarte Zerbitzuetara iristeko zailtasunak 64

Aurkibidea

5.15 taula	Gastu orokorrei aurre egiteko zailtasunak	65
5.16 taula	Bizi-kalitatearen balioespen orokorra	67
6.1 taula	Udal Gizarte Zerbitzuetako jardueren balioztapena	72
6.2 taula	Gizarte Zerbitzuetara joateko beharra etorkizunean	73
6.3 taula	Ondorengo baliabideengatiko edo etorkizuneko programengatiko interesa	74

Aurkibidea

Grafikoen aurkibidea

1.1 grafikoa Zarauzko adinekoei buruzko azterlanaren eskema metodologikoa 11
2.1 grafikoa 75 urtetik gorakoak eta bakarrik bizi diren pertsonen artean aztertutako dimentsioen balioespen orokorra 25
3.1 grafikoa Zahartze eta Gain-Zahartze erakuslea Zarautz, Gipuzkoa eta EAE, 2017 30
3.2 grafikoa 75 urte edo gehiago dituzten Zarautzeko biztanleen bilakaera, 2011-2017 31
3.3 grafikoa 75 urte edo gehiagoko Zarautz eta Gipuzkoako biztanleriaren distribuzioa sexuaren arabera (%, 2017) 32
3.4 grafikoa 75 urtetik gorako Zarauzko biztanleriaren distribuzioa sexu eta adin taldeka (%, 2017) 32
3.5 grafikoa Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako Biztanleria osoaren menpekotasun tasa eta 65 urte edo gehigo dituzten pertsonen menpekotasun tasa, 2017 34
3.6 grafikoa Zarauzko menpeko biztanleen bilakaera sexuka(%), 2011-2017 34
3.7 grafikoa Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako menpekotasun tasa sexuka %, 2017 35
3.8 grafikoa Biztanleriaren menpekotasun maila adinaren arabera 37
4.1grafikoa Zarautzeko Mapa, Barruti eta Sekzioen banaketarekin 41
4.1 grafikoa Bakarrik bizi direnen 75 urte edo gehaigoko biztanleen kokapena barruti eta sekzioka (%) 43
4.2 grafikoa Erabiltzaileak ez diren Zarautzeko biztanleriaren banaketa barruti eta sekzioaren arabera (%) 46
5.1 grafikoa Elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak 50
5.2 grafikoa Osasun egoeraren batez besteko balorazioa 51
5.3 grafikoa Hartu beharreko botikak antolatzeko zailtasunak 52
5.4 grafikoa Osasun arazoetatik eratorritako mugaketen existentzia 53
5.5 grafikoa Egunerokotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak gauzatzeko gaitasunaren batazbestekoa 55
5.6 grafikoa Egunerokotasuneko ekintzak egiteko zailtasun handia duen biztanleria 56
5.7 grafikoa Egunerokotasuneko ekintza instrumentalak burutzeko gaitasuna 57
5.8 grafikoa Harreman sozialik ez duen adineko bizntalegoa 58
5.9 grafikoa Behar duenean, nork laguntzen dio? 59
5.10 grafikoa Parte-hartze sozial eta komunitarioetako ekintzak egiten ez dituzten adineko biztanlegoa 61
5.11 grafikoa Egoera emozionalaren balioespena 62
5.12 grafikoa Zarautzeko 75 urte edo gehiagoko pertsonen sarrera iturriak 65
5.13 grafikoa Gastu orokorrei aurre egiteko zailtasunak 66
5.14 grafikoa Zarautzeko 75 urte edo gehiagoko pertsonen sarrera maila 66
5.15 grafikoa 75 urte edo gehaigo ditzuten eta bakarrik bizi diren pertsonen hileroko sarrera mailaren batazbestekoa 67
5.16 grafikoa Bizi-kalitatearen batazbestekoaren balioespen orokorra 68
6.1 grafikoa Udal Gizarte Zerbitzuen ezaguera 70
6.2 grafikoa Udal Gizarte Zerbitzuen zerbitzu eta prestazioen ezaguera 71
6.3 grafikoa Arreta baliabideen erabilpena 71

Aurkibidea

6.4 grafikoa Udal Gizarte Zerbitzuetara joan izanaren zergatiak 71
6.5 grafikoa Udal Gizarte Zerbitzuetara joan ez izanaren zergatiak 73

1. Sarrera eta aurrekariak

1. Sarrera eta aurrekariak

Agiri honetan dago jasota 75 urte edo gehiago dituzten adinekoei buruzko azterlanaren emaitza. Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek IKEI Research & Consultancy-ri eskatutako lana da.

Adinekoen arreta udalerriko funtsezko alderdietako bat da. Urteek aurrera egin ahala, adinekoekin egiten diren esku-hartze sozialak ugaritzen ari dira, nahiz eta, oraindik, gizartearen beharren eta eskaeraren azpitik ibili. Gizarte-zerbitzuen sistemaren onuradun diren adinekoen kopurua nabarmen hazi da EAE osoan eta Gipuzkoan; baita Zarautzen ere. Horren ondorioz, handitu egin da gisa honetako azterlanak eta diagnostikoak egiteko beharra. Horien beharra dago erabaki onak hartu ahal izateko eta etorkizunera begira, zerbitzuak, arretarako baliabideak eta Udaleko gizarte-zerbitzuen eskaintza orokorra egokitzeko.

6 kapitulu ditu txostenak:

- Sarrerako **lehen kapitulu** honetan, azterlanaren helburuak, analisirako erabilitako metodologia eta Zarauzko Udalak adinekoekin esku hartzeko eta adinekoei arreta eskaintzeko araudi-esparruaren laburpena daude bilduta.

- **2. kapituluak** udalerriko adinekoen inguruko datu kuantitatiboak eta bilakaera-datuak eskaintzen ditu eta **3. kapituluak** bakarrik erroldatuta dauden adinekoei erreparatzen die.

- **4. kapitulua** bakarrik erroldatuta dauden udalerriko 75 urte edo gehiago urtetik dituzten pertsonen artean eginiko Inkestaren emaitzetan dago oinarrituta. Egoera kognitiboa eta osasun-egoera sakon aztertzen ditu (osasun-egoeraren eta eguneroko jarduerak egiteko gaitasunaren balorazioa), baita haien harreman-egoera (harreman pertsonalik baduten edo ez, gizartean eta komunitatean parte hartzea), ongizate emozionala (bakarrik egotearen pertzepzioa eta beldurrak), ongizate materiala (etxebizitzaren egoera eta diru-sarrerak) eta bizi-kalitatearen balorazio orokorra ere.

- **5. kapituluak** aztertzen du ea adinekoek Udaleko Gizarte Zerbitzuen inguruan zer ezagutza maila duten eta ea zerbitzu horietara jo duten edo ez. Etorkizunean, arreta emateko zerbitzuetan eta baliabideetan izango den eskaeraren adierazle batzuk ere aipatzen ditu.

- Dokumentu honen azken kapituluak, **6. kapituluak,** azterlanaren ondorioak eta gizarte-politikak diseinatzean aintzat hartu beharreko jarduera-gomendioak dakartza.

1. Sarrera eta aurrekariak

1.1. Sarrera

1.1.1. Txostenaren aurkezpena

Hona hemen azterlan honen helburu nagusia:

Zarauzko Udalak identifikatu egin nahi ditu 75 urte edo gehiago dituzten udalerriko herritarrek dituzten kalteberatasun egoera eta behar, hala, duen eskaintza eta zerbitzuak egoera horietara egokitu ahal izateko; batez ere bakarrik bizi diren adinekoen egoera aintzat hartuta. Hori horrela, Udalak, Gizarte Zerbitzuen Sailetik, bakarrik bizi eta 75 urte edo gehiago dituzten herritarrengana jo nahi du, zer behar dituzten ezagutu eta aztertu eta horren harira, duen eskaintza eta baliabideak kolektibo horren beharretara egokitu ahal izateko.

Helburu orokor hori honako helburu espezifiko hauetan dago zehatzago adierazita:

1. **Zarautzen bakarrik bizi diren 75 urte edo gehiago dituzten herritarrak zer egoeratan dauden jakitea:**
   - Pertsona horien profil soziodemografikoa ezagutzea eta haien ezaugarriak zehaztea.
   - Kolektibo horren egoera soziala ezagutzea eta egoera horren ezaugarriak zehaztea:
     - ✓ Osasuna eta mugak eguneroko jardueretarako
     - ✓ Harreman sozialak eta parte-hartze soziala eta komunitatekoa
     - ✓ Ongizate emozionala: bakardadea, isolamendua eta maitasun-falta
     - ✓ Etxebizitzaren egoera
     - ✓ Egoera ekonomikoa
2. **Adinekoek Udal Gizarte Zerbitzuen eta haien lanaren inguruan zer dakiten jakitea eta aztertzea:**
   - ✓ Zarauzko gizarte-zerbitzuen inguruko ezagutza maila
   - ✓ Erabilgarri dituzten baliabideak, zerbitzuak eta laguntzak ezagutzea eta erabiltzea
   - ✓ Udaleko gizarte-zerbitzuetara ez jotzeko arrazoi nagusiak
   - ✓ Etorkizunean, baliabideek, zerbitzuek eta laguntzek zer eskaera izango duten aztertzea
   - ✓ Udaleko gizarte-zerbitzuetan eskaintzen diren zerbitzuei eta zerbitzu espezializatuari buruzko informazioa ematea.

1. Sarrera eta aurrekariak

1.1.2. Azterlanaren metodologia

Diagnostikoa **metodologia kuantitatibo** (datu estatistikoak eta dokumentu-iturriak) eta **kualitatibo** (75 urte edo gehiago dituztenei elkarrizketa pertsonalak eginda) batean oinarrituta egin dugu.

1.1 grafikoa Zarauzko adinekoei buruzko azterlanaren eskema metodologikoa

Udalerriko adinekoen ezaugarriak zehazteko eta adinekoak kuantifikatzeko, zenbait iturri estatistiko aztertu ditugu eta horiei esker, Zarauzko adinekoen egoerari eta ezaugarri nagusiei buruzko informazioa lortu dugu eta beste eskualdeetakoarekin eta Gipuzkoakoarekin ere alderatu dugu. Bakarrik erroldatuta dauden udalerriko 75 urte edo gehiago dituztenen Udal-erroldako datuak ere aztertu ditugu; baita Udaleko gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarren datuak ere.

Bestalde, **bakarrik erroldatuta dauden Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten pertsonei Inkesta** egin diegu.

Landa-lanaren aurreko fasean, gutunak bidali ziren inkestaren xede ziren etxeetara, udalerrian egingo zen azterlanaren berri eman eta azterlanean parte hartzera animatzeko. Gutunarekin batera udalerrian arreta eskuratzeko dauden baliabideen gida eta iman bat bidali ziren, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko telefono-zenbakiekin.

1. Sarrera eta aurrekariak





Landa-lana eta inkestak egiteko lana 2018ko azaroan egin ditugu. Zehatzago esanda, bakarrik erroldatuta dauden Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten adinekoekin harremanetan egon gara telefono bidez eta zuzenean etxeetara eginiko bisiten bidez. Azterlanak xede zuen unibertsoa **558 pertsonak** osatzen zuten eta telefonoz zein zuzenean, udalerriko **238** adineko elkarrizketatzea lortu dugu.

1.1 taula Unibertsoaren eta 2018. Urtean Zarautzeko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkestaren laginaren distribuzioa

Emaitza	Unibertsoa	Lagina
Emakumezkoak	**424**	**181**
▪ 75-79 urte	101	44
▪ 80-84 urte	131	62
▪ 85- 89 urte	123	50
▪ 90 urte edo gehiago	69	25
Gizonezkoak	**134**	**57**
▪ 75-79 urte	44	14
▪ 80-84 urte	45	23
▪ 85- 89 urte	31	15
▪ 90 urte edo gehiago	14	5
GUZTIRA	**558**	**238**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

1. Sarrera eta aurrekariak

Honi erantsitako taulan dago xehe azalduta landa-lana nola egin dugun.

1.2 taula Landa-lanaren emaitza

Emaitza	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Emaitza (Nº)	Emaitza (%)
Galdetegi osatua	**57**	**181**	**238**	**42,65%**
Azterketan parte hartzeari uko egitea	**6**	**26**	**32**	**5,73%**
Egoera berezien detekzioa				
▪ Senide batekin bizi da	1	0	1	0,18%
▪ Egoitza zentro batean bizi da	5	6	11	1,97%
▪ Heriotza	1	2	3	0,54%
▪ Muga psiko-fisikoak (*)	1	0	1	0,18%
▪ Ez da herrian bizi	1	0	1	0,18%
Aurkitu gabe kontaktuak				
▪ Erantzunik gabe/ilokalizagarririk gabe deia	53	175	228	40,86%
▪ Telefono okerra	9	34	43	7,71%
GUZTIRA	**134**	**424**	**558**	**100,00%**

(*)Muga psiko-fisikoak: ulertzeko zailtasunak, bai hitzegiterakoan bai galdetegia betetzerakoan.

Sexua	KONTAKTATUTAKO PERTSONAK GUZTIRA	KONTAKTATU GABEKO PERTSONAK GUZTIRA	EGINDAKO INKESTATUTAKO PERTSONAK	INKESTATUTAKO PERTSONAK (%)
Gizonezkoa	72	62	57	79,17%
Emakumezkoa	215	209	181	84,19%
GUZTIRA	**287**	**271**	**238**	

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiagoko biztanleei egindako inkesta, 2018.

1. Sarrera eta aurrekariak

Azterlanerako, **galdera-sorta** bat prestatu genuen, 75 urte edo gehiago dituzten pertsonentzako erraza eta erabilerraza, zenbait gairen inguruan, adinekoek dituzten beharrak eta benetako egoerak sakon ezagutzeko helburuarekin. Hona hemen inkestaren atal nagusiak:

- Ezaugarri soziodemografikoak (sexua, adina, egoera zibila...)
- Egoera kognitiboa eta osasun-egoera
- Harremanei dagokien egoera
- Ongizate emozionala
- Ongizate materiala: etxebizitza eta ekonomia
- Gizarte-zerbitzuak ezagutzea eta haiekiko harremana.
- Etorkizuneko beharrak eta eskaria

75 urte edo gehiago dituzten Zarauzko adinekoei eginiko Inkestak aukera eman digu ahultasunari lotutako honako dimentsio hauek sakon aztertzeko.

1. Sarrera eta aurrekariak

1.2. Gizarte Zerbitzuetatik adinekoei eskaintzen zaien arreta

1.2.1. Araudi-esparrua

Gizarte-zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren 185/2015 Dekretuak zehazten dituzte arlo publikoko zerbitzuak eta prestazioak eta definitu egiten dute prestazio edo zerbitzu bakoitzaren izaera, helburua, hartzaileak, eskuratzeko baldintzak eta koordainketa eskatzen duten edo ez.

1. Sarrera eta aurrekariak

1.3 taula Adinekoentzako arreta arlo publikotik

Udaleko gizarte-zerbitzuei buruzko oinarrizko araudia	
Araudi orokorra	• 10/2000 Legea, 2000ko abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena. • 12/2008 Legea, 2008ko abenduaren 5ekoa, gizarte-zerbitzuena. • 155/2001 Dekretua, gizarte-zerbitzuen arloan funtzioak zehaztekoa. • 353/2013 Dekretua, 2013ko maiatzaren 28koa, Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa. • 2/2016 Legea, 2016ko apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeena.
• **Adineko pertsonak**	• 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. • 35/2002 Legea, 2002ko uztailaren 12koa, pixkanakako erretiro-sistema malgu bat ezartzeko neurriei buruzkoa. • 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. • 7/2008 Errege Dekretua, 2008ko urtarrilaren 11koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen (abenduaren 14koa) prestazio ekonomikoei buruzkoa. • 569/2011 Errege Dekretua, 2011ko apirilaren 20koa, 2011ko ekitaldirako Autonomiaren aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren onuradunei bermatutako gutxieneko babes maila zehazten duena. • 41/1998 Dekretua, 1998ko martxoaren 10ekoa, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzkoa. • 12/2016 Foru Dekretua, 2016ko maiatzaren 24koa, honako hau aldatzen duena: 15/2015 Foru Dekretua, 2015eko ekainaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa. • 87/2015 Foru Dekretua, 2015eko abenduaren 15ekoa. Horren bidez onartzen dira 15/2015 Foru Dekretuan, 2015eko ekainaren 2koan, aurrez ikusitako zerbitzuen gehienezko ekarpenak eta 15/2015 Foru Dekretu horrek arautzen du, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea. • 29/2008 Foru Dekretua, 2008ko apirilaren 29koa, besteren beharra duten pertsona adinduak beren kargura dituzten familiei laguntzeko "Sendian" programa onesten duena. • 7/2015 Foru Dekretua, 2015eko martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena. • Etxez etxeko laguntza arautzen duen Udal Araudia: 2006ko maiatzaren 24an BOEn jasota eta ondorengo aldaketak 2011ko maitzak 4ean.

Iturria: IKEI, bertan egina

Adinekoei dagokienez, zerbitzuen eta prestazioen zorroa 39/2006 Legeak ere baldintzatzen du. 2006ko abenduaren 14koa da Lege hori, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa eta horrek ezartzen ditu mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta eskaintzeko baliabideak.

1. Sarrera eta aurrekariak

Zorroaren Dekretuak honako baliabide eta zerbitzu hauek ezartzen ditu adinekoen behar sozialei arreta eskaintzeko.

Adinekoei arreta eskaintzeko baliabideak	
INFORMAZIOA, BALORAZIOA, DIAGNOSTIKOA ETA ORIENTAZIOA	• Informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa eskaintzeko zerbitzua.
	• Mendekotasunaren balorazioa eta diagnostikoa egiteko zerbitzua
	• Desgaitasunerako zerbitzua eta balorazioa
ETXEZ ETXEKO ARRETA EDO EGUNEKO ARRETA	• Etxez etxeko laguntza-zerbitzua, ELZ • Teleasistentzia-zerbitzua • Laguntza teknikoak • Eguneko arretarako zerbitzuak • Eguneko zerbitzua edo zentroa autonomiari lotutako mugek sorrarazitako beharrei arreta eskaintzeko • Sendian Programa: zaintzaileei babesa emateko zerbitzua
EGOITZAKO ARRETA	• Gaueko zentroa autonomiari lotutako mugek sorrarazitako beharrei arreta eskaintzeko • Egoitza-zentroak • Atsedenaldirako zerbitzua • Tutoretzapeko apartamentuak • Etxebizitza komunitarioak
LAGUNTZA EKONOMIKOAK	• Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) • Gizarte-larrialdietarako laguntzak • Kotizazio gabeko pentsioak • Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) • Familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza (FIZPE) • Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE) • Gizarte Ongizaterako Funtsa (GOF)
BESTE ZERBITZU ETA BALIABIDE BATZUK	• Helduekin egiteko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak • Aisialdiko jarduerak

Iturria: IKEI, bertan egina

1. Sarrera eta aurrekariak

1.2.2. Zarautzeko Adinekoei zuzendutako Gizarte Zerbitzuak

Udal gizarte zerbitzuak Zarautzeko erdigunean kokatzen dira, Zigordia 33 kalean zehazki, helburu bezela adineko pertsonen beharrak aztertu eta balioestea, giza baliabideen inguruan informatu eta orientatzea, prestazioak eta giza baliabideak kudeatuzea eta komunitarioak eta prebentziozkoak diren baliabideak kudeatzea.

Zigordia Kalea 33

Adineko pertsonei zuzendutako zerbitzu eta baliabideek ondorengo esparruak barneratzen dituzte:

• **Pertsonari eta haien familie informazioa**	• **Adineko pertsonen egoitzak**
• **Tele-laguntza zerbitzua**	• **Laguntza teknikoak**
• **Etxerako laguntza zerbitzua**	• **Sendian Programa**
• **Eguneko zentroa(Mª Etxetxiki)**	• **Menpekotasunerako laguntza ekonomikoak**
• **Apartamentu tutelatuak**	• **Beste laguntza ekonomikoak**

- **Pertsona eta haien familientzako Informazioa zerbitzua,** gizartea, bereziki adineko pertsonak, larritzen dituzten funtsezko gaien inguruan informazioa eskaintzean datza:
  - ✓ Erabiltzaile diren pertsonen zerbitzu eta prestazio, eta eskubide eta betebeharren inguruan informatzea.
  - ✓ Pertsonen ingurunea eta haien gaitasunak balioetsi, eta jarraipena behar badu, pertsona, familia eta pertsona interesatuaren laguntza sarearen parte-hartzearekin lehen diagnostiko bat eginKasu bakoitzean gehien komeni den zerbitzuetara eratortzea.
- **Tele-laguntza zerbitzua,** etxebizitzan gerta daitekeen edozein larrialdiei (erorketa, ondoeza,…) aurre egiteko arreta azkarra eskaini eta komunikazio sistema baten bitartez, segurtasuna eskaintzen duen dispositibo bat da. Arreta urteko 365 egunetan 24 orduz eskaintzen du.

1. Sarrera eta aurrekariak

- **Etxerako laguntza zerbitzua,** adineko pertsonaren etxean, laguntza pertsonala eta etxearen zainketan laguntza eskaintzen duen zerbitzua da.

- **María Etxetxiki eguneko zentroa,** menpekotasuna duen adineko pertsonei arreta osoa ekaintzen zaie. Gainera, adineko pertsonen autonomia mantendu eta hobetzeko ekintzak egiten dira, bai egoitzan bai egoitzatik kanpo.

- **Apartamentu tutelatuak**, komunitatean mantentzeko behar urriak dituzten adineko pertsonei zuzendutako etxebizitza zerbitzua da. Etxebizitza eta bizikidetza eskaintzen dira, eta aldi berean, gaitasun sozial eta pertsonalak ere lantzen dira
- **Adineko pertsonentzako egoitzak,** menpekoak diren adineko pertsonei arreta osoa eta etxebizitza iraunkorra eskaintzen zaie. Eskainitako zerbitzuak: etxebizitza eta mantenua, zainketa pertsonala, osasun eta erizaintza laguntza, ekintza kulturalak,etab

- **Aldi baterako egonaldiak egoitzetan**, menpekoak diren adineko pertsonei eskaintzen zaien beste aukera bat da, urtean hilabete batez egoitzan gelditzekoa hain zuzen ere. Helburua, familei, eta batez ere zaintzaileei, atseden ematea da

- **Laguntza teknikoak,** etxebizitzan nahiz ingurunean (ohe artikulatuak, dutxarako ahulkiak, gurpildun ahulkiak, ibiligailuen egokitzapena,etab.) irisgarritasuna, mugikortasuna eta zainketa bermatu nahi duten dispositibo multzo baten bitartez laguntza eskaintzea bilatzen du.

- **Sendian programa,** menpeko pertsonak zaintzen dituzten familie laguntza eskaintze die, hainbat arlotan: laguntza psikologikoa, laguntza taldeak, aste bukaeretarako bai egoitza bai eguneko zentroetan aldi laburreko egonaldiak.

1. Sarrera eta aurrekariak

- **Menpekotasunerako laguntza ekonomikoak**, bereziki hiru dira:

  - ✓ Ingurune familiarrak eginiko zainketarako laguntza, Egunerokotasuneko jarduerak egiteko familiaren laguntza behar duen pertsonei zuzendua.

  - ✓ Laguntzaile pertsonal baten kontrataziorako laguntza. Egunerokotasuneko jarduerak egiteko laguntza profesionala kontratatzen dutenei zuzendua.

  - ✓ *Zerbitzurako lotutako prestaketa,* egoitza eta foru sareko eguneko zentrorako leku baten zain dauden, eta bien bitartean egoitza pribatu batera joan behar duten pertsonei zuzendua.

- **Gizarte Zerbitzuen bidez eskuratu daitezkeen beste laguntza ekonomikoak:**

  - ✓ Giza larrialdietako laguntzak: egunerokotasuneko gastuei (argia, alokairua,…) aurre egiteko baliabide nahiko ez duten pertsonei zuzendatuko prestazioak dira.

  - ✓ Kontribuzio gabeko pentsioa :sarreren eta ondarearen araberako pentsioa, oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonei zuzendua.

  - ✓ Ongizate sozialaren funtsa: oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonei zuzendua.

- **60 urtetik aurrera zahartze aktiboa sustatzeko ekintza desberdinak,** batetik, adineko pertsonentzako mahaia: Zarautzeko udalak, udal gizarte zerbitzuen ordezkariak,adineko arloko zinegotziak, udalerriko zenbait elkarteek (Udaberri eta Iñurritza jubilatuen elkarteen ordezkariak, AFAGIko ordezkariak, Santa Ana Egoitzako ordezkariak, Nagusilan elkarteko ordezkariak, Kostan Elkarteko ordezkariak, Duintasuna Elkarteko ordezkariak, eta María Etxetxikiko ordezkariak) eta zenbait norbanako. Foru honen barnean, ikuspuntu eta iritzi desberdinak partekatzen dira, eta adinekoei zuzendutako jarduerak antolatzen dira beti ere bere begirada kontuan edukita. Hilabetean behin elkartzen da talde hau, eta antolatzen dituzten jarduera desberdinen artean, +60 astea nabarmentzen da, adineko pertsonei zuzendutako hitzaldi eta ekitaldi desberdinez osatua.

- **Adineko pertsonentzako kirola eta osauna, udal kiroldegitik** sedentarismo ekidin eta pertsonen ekintzak sustatzeko zerbitzuak eskaintzen dira, 60 urtetik gorako pertsonentzako berariazko ikastaroekin: Zumba 60+, Gimnasia 65+ y Tipi tapa 65+.

1. Sarrera eta aurrekariak

1.2.3. Zarautz Lagunkoia

2015. urtean Zarauzko udala, bere inguruko beste herri batzuk bezela: Eibar, Azkoitia eta Orio, Euskadi Lagunkoia programaren kide egiten da, bere inguruko beste udalerri asko bezala: Eibar, Azkoitia y Orio. Ordundik, "Hirugarren Adinekoen mahaia" izeneko talde sustatzailearen bitartez, lantzen ari dira jarduera eta lan ildo desberdinak.

Talde hau, udalak sustatutako taldea da, eta bertan elkarte desberdinen ordezkariak eta udaleko teknikariak eta politakariak biltzen dira.

Lagunkoia txostenerako landutako diagnosian honako esparru hauek lantzen dira:

- ✓ Alderdi Orokorrak: positiboki adierazten direnak, garbitasuna, zaratatsua ez den udalerria, eta bizitzeko atsegina. Puntu negatibo bezala, garbitasun falta gune zehatz batzuetan eta Zarautzen bizitzeko zailtasun ekonomikoa.

- ✓ Zonalde libreak eta egoteko (parkeak, lorategiak eta enparantzak): positiboki baloratzen dira parke, lorategi eta zonalde libre kopurua eta kokalekua, eta negatiboki baloratzen dira, auzoen arteko garbiketa desberdintasunak eta komun publiko gehiago eskatzen dira zonalde libre horietan.

- ✓ Kale eta merkatal ardatzak: Oso positiboki baloratzen de, Zarautzen existitzen diren, atseden zonaldeak, eseritzeko leku nahikoekin…baina bestetik badaude oraindik ondo asfaltatutako errepideak, eta zebra bideak, maila altuko espaloiak eta goiko auzoetara irisgarritasuna ez da ona.

- ✓ Garraioa (autobusa, trena, autoa, bidegorriak…): autobusarekin lotuta, bere maiztasuna, geltoki kopurua eta erabilgarritasuna nabarmentzen da, eta puntu negatibo bezala, oraindik garraio ibilgailu batzuen irisgarritasun falta (eskailera-maila). Bidegorri sarea oso positiboki balortzen da bai, bere hedadura eta baita bere aurrerapenak, baina bestetik, erabiltzaileen gizatasuna ez maila berean. Trenarekin lotura, geltokiaren kokapena positibotzat jasotzen da eta hobetzeko puntu bezala, astebukaerako bere maiztasuna handitzea.

- ✓ Etxebizitza: alderdi negatibo bezala, Zarautzko etxebizitzen prezio altua komentatzen da, eta bestetik etxebizitzak egokitzeko dauden laguntzen inguruan informazio falta, eta oraindik irisgarritasun aldetik egokituak ez dauden etxebizitza kopuru nabarmena.

- ✓ Partaidetza eta gizarte sarea (familia, auzoa, merkatariak, gizartea partaidetza, boluntariotza, aisia):Zarauzko familiak orokorrean adineko pertsonekin harremana dute eta maiztasun nahikoarekin. Auzo eta merkatarien inguruan, elkartasun

1. Sarrera eta aurrekariak

puntu gisa, hauen bizitasuna eta garrantzia azpimarratzen da, nahiz eta batzuetan iristarritasuna ez oso ona izan. Aisiari buruz, jarduera nahikoak daudela, instalakuntzen kokagune eta prezio egokia azaleratzen da. Alderdi ez hain positibo gisa, Zarauzko adineko pertsonek faltan botatzen duten belaunaldienarteko harremana da.

- ✓ Komunikazioa eta informazioa: panel informatiboak instalatzeko aukera, adineko pertsonen artean mundu digitala gehiago sustatzea eta prentsa erabiltzea dibulgazio moduan.

- ✓ Gizarte eta osasun zerbitzuen inguruan: Osakidetza, telelaguntza zerbitzua eta eguneko zentro eta egoitza zentroak positiboki baloratzen dira. Eta alderdi negatibo bezala kopaguaren inguruan informazio falta.

Diagnostiko honetatik, 6 jarduera nabarmentzen dira, jada martxan jartzen ari direnak:

1. **Zarautzko bakardadearen inguruko diagnosia egitea**
2. **Belaunaldien arteko harremanak sustatzea**
3. **Goizialdiak: eguneko arreta zerbitzua sortzea**
4. **Interbil zerbitzua urte guztira zabaltzea** (mugimendu mugatuko pertsonei edo beren etxe edo atarietan langa arkitektonikoak dituztenei, kalera atera ahal izateko zuzendutako zerbitzua)
5. **Adineko pertsonentzako parkeak dinamizatzea**
6. **Establezimendu lagunkoien programa sustatzea**

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

2.1. Ondorioak

Azterlan honi esker, Zarautzen **bakarrik bizi diren adinekoen egoera eta behar sozialak ezagutu eta sakon aztertu ditugu**.

Gizarte-zerbitzuen 12/2008 Legeak eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuak zehazten dituzte alor publikotik adinekoei eskaini beharreko zerbitzuak eta prestazioak. Zarauzko Udalak, Gizarte Zerbitzuen bidez, **adinekoei arreta eskaintzeko baliabide eta gailuen aukera zabala du**.

Hori horrela, **datu demografikoek erakusten dute Zarauzko adinekoen kopurua handitzen ari dela eta horrek, inplizituki, arreta-eskaera handitzea dakar. Udalerriko zahartze eta gehiegizko zahartze mailak Gipuzkoakoak** eta EAEkoak **baino baxuagoak dira oraindik,** eta beraz, badirudi areagotzeko aurreikuspen horrek iraun egingo duela.

Zarautzen 4.485 dira 65 urtetik gorakoak eta 2.019k dituzte 75 urte edo gehiago. Une honetan, **600 adinekok baino gehiagok jaso dute Zarautzen mendekotasun-balorazioa**.

Udal-erroldako datuen arabera, 2018an, **75 urte edo gehiago dituzten 558 pertsona daude haien etxebizitzetan bakarrik erroldatuta;** hau da, Zarauzko 75 urte edo gehiagoko herritarren % 27. Hauetatik, 424 emakume eta 134 gizon daude. Kolektibo horren batez besteko adina 82,8 urtekoa da eta batez besteko hori handixeagoa da Zarautzen bakarrik bizi diren emakumeetan (83,12 urte) gizonetan baino (81,72 urte).

Erroldan bakarrik erroldatutako adinekoen ehuneko handiena duten sekzioak bi barrutietako 1 sekzioak dira, hau da, Mendilauta zonaldea eta Alde zaharreko Salegi Zigordia zonaldearekin bat datozenak (Ikusi 1.Eranskina). Ikusi dugu, halaber, bakarrik erroldatutako 75 urtetik gorako adinekoen % 54 Zarauzko gizarte-zerbitzuen erabiltzailea dela eta % 46 ez-erabiltzaile gisa azaltzen dira.

La información contenida en este documento es de carácter privado e intransferible, 2018 © IKEI

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

Udalerrian bakarrik erroldatuta dauden 75 urte edo gehiago dituzten adinekoen artean egin dugun inkestak erakusten du **oro har, Zarauzko adinekoen zati handi bati bizi-kalitate ona duela iruditzen zaiola** (7,2 puntu 10etik).

Askori iruditzen zaie, gainera, **osasun-egoera ona dutela** (6,6 puntu) eta **badutela eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna** (6,7 puntu).

Horrez gain, adineko gehienek **baieztatu dute harreman pertsonal onak dituztela** (10etik 9k badu behar duen babesa) eta **aldarte-egoera ona** dutela (10etik 6k adierazi dute ez direla bakarrik sentitzen).

Ongizate materialari dagokionez, **10etik ia 9 haien etxebizitza propioan bizi dira eta ez dute zailtasunik gastu orokorrei aurre egiteko** (10etik 8).

2.1 grafikoa 75 urtetik gorakoak eta bakarrik bizi diren pertsonen artean aztertutako dimentsioen balioespen orokorra



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

La información contenida en este documento es de carácter privado e intransferible, 2018 © IKEI
[EUS Azken txostena.docx]

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

Hala ere, txostenean deskribatuta dagoen moduan, **adierazle batzuek 75 urte edo gehiago dituzten biztanleriaren zati baten ahultasuna erakusten dute** eta gai horiek kontuan hartu behar dira udalerrian adinekoei zuzenduta egiten diren gizarte-politiken etorkizuneko jarduerak planifikatzeko eta diseinatzeko orduan.

- **Elkarrizketatu ditugunetatik % 15k adierazi dute osasun-arazoak direla-eta ezin direla bakarrik moldatu eta % 9k adierazi dute ezin direla kalera atera.**

- **Kolektibo horretako % 4k adierazi dute ez dutela gertuko familiakorik edo ez dutela haiekin harremanik eta % 6,7k azaldu dute ez dutela behar adinako laguntzarik.**

- **Adinekoen % 14 sarri sentitzen dira bakarrik eta % 18k maiz izaten dute tristura-sentsazioa.**

- **Elkarrizketatutakoen % 26k adierazi dute zailtasunak izaten dituztela edo antsietatea sentitzen dutela eguneroko kudeaketa-lan batzuk egiteko (bankua, abokatua, aseguruak).**

- **% 7k etxebizitza nagusia aldatzeko eta birgaitzeko beharra dute.**

- **Bizitoki duten eraikinean ez dute irisgarritasun egokia % 19k.**

- **Lautik batek azaldu du zailtasunak dituela udalerriko zerbitzu publikoetara iristeko.**

- **% 11k baieztatu dute larri ibiltzen direla gastu orokorrei aurre egiteko.**

- **% 14k ez dituzte udalerriko gizarte-zerbitzuak ezagutzen eta bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoen artean bitik bat ez da gizarte-zerbitzuetan izan.**

La información contenida en este documento es de carácter privado e intransferible, 2018 © IKEI

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

2.2. Adierazleen laburpen-taula

2.1 taula Zarauzko adinekoen egoera soziala erakusten duten adierazleen laburpen-taula

Adierazlea		Zarautz
Demografia	Zahartze-indizea: 65 urtetik gorako populazioaren %	% 19,4
	Gehiegizko zahartzearen indizea: 75 urtetik gorako populazioaren %	% 8,7
	65 urtetik gorakoen mendekotasun-tasa (%)	% 13,4
	75 urtetik gorako populazioa (kopurua)	2.019
	Bakarrik erroldatutako 75 urte edo gehiago diutzten pertsona (kopurua)	558
	• Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak (kopurua)	301
	• Gizarte-zerbitzuen erabiltzaile ez direnak (kopurua)	257
Osasuna	Osasunaren balorazio orokorra (0-10erako indizea)	6,56
	• Zailtasunak sendagaiak antolatzeko eta kudeatzeko (baiezkoen %)	% 2,1
	• Bakarrik moldatzea eragozten dieten osasun-arazoak (baiezkoen %)	% 15,4
	• Osasuna dela-eta ezin da kalera atera (baiezkoen %)	% 8,7
	Eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna (0-10erako indizea)	6,7
Harremanak eta gizartean nahiz komunitatean parte hartzea	Gertuko familiarekin eguneroko harremana (baiezkoen %)	% 82,4
	Ez du gertuko familiakorik edo ez du haiekin harremanik (baiezkoen %)	% 4,2
	Ez du behar adinako laguntzarik (baiezkoen %)	% 6,7
	Laguntza behar izanez gero, ez du inor inguruan, harengana jotzeko (baiezkoen %)	% 2,1
	Ez da etxetik ateratzen (baiezkoen %)	% 2,5
Ongizate emozionala	Bakardade-pertzepzioa (%, maiz)	% 13,9
	Tristura-pertzepzioa (%, maiz)	% 18,1
	Segurtasun-falta etxean (%, maiz)	% 8,0
	Zailtasunak edo antsietatea eguneroko kudeaketa-lan batzuk egiteko (%, maiz)	% 25,6
Ongizate materiala: Etxebizitzaren egoera eta diru-sarrerak	Etxebizitza jabetzan (%)	% 90,6
	Etxebizitza alokatuta (%)	% 4,3
	Etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharra (%)	% 7,3
	Eraikinaren irisgarritasuna (%, txarra edo oso txarra)	% 19,2
	Zailtasunak udalerriko zerbitzu publikoetara iristeko, % 8)	% 25,9
	Zailtasunak gastu orokorrei aurre egiteko (%, zailtasun handia edo handi samarra)	% 11,3
	Hileko diru-sarrerak batez beste (eurotan)	1.024
Bizi-kalitatearen balorazio orokorra	Bizi-kalitatearen batez besteko balorazioa (0-10erako indizea)	7,2
Gizarte-zerbitzuak ezagutzea eta erabiltzea	Gizarte Zerbitzuak ezagutzea (baiezkoen %)	% 83,0
	Gizarte Zerbitzuak ez ezagutzea (ezagutzen ez dituztenen %)	% 13,7
	Gizarte Zerbitzuek arreta eskaintzeko dituzten baliabideen erabilera azken urtean (%)	% 18,8
	Gizarte Zerbitzuen inguruko batez besteko balorazioa (0-10erako indizea)	8,2
Arreta jasotzeko baliabideen eskaria etorkizunean	Zerbitzuen beharra etorkizun hurbilean (baiezkoen %)	56,4

Iturria: IKEI, bertan egina.

La información contenida en este documento es de carácter privado e intransferible, 2018 © IKEI

2. Ondorio nagusiak, laburtuta

La información contenida en este documento es de carácter privado e intransferible, 2018 © IKEI

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.1. Adineko pertsonen kuantifikazioa

Gipuzkoako biztanleria zahartzen ari da eta Zarauzkoa gehiegi zahartzen: 9 pertsonatik 1ek 75 urte edo gehiago ditu

Populazioa zahartzen ari da EAEn, Gipuzkoan eta baita Zarautzen ere. Grafikoak erakusten du 65 urtetik gorako populazioak eta 75 urtetik gorakoak ratio esanguratsuak dituztela populazio osoa aintzat hartuta. Bizkaiak du gehiegizko zahartzearen indize handiena (% 11,3) eta atzetik ditu Gipuzkoa (% 10,6) eta Araba (% 9,7).

Zarautzen, 19,4ko tasa dute 65 urtetik gorako herritarrek eta tasa hori altua izan arren, lurralde osoari dagokion 21,60ko tasaren azpitik dago.

Zarauzko populazioa ere zahartzen ari da, baina erritmo motelagoan; izan ere, zahartzearen ratioa (% 19,4) eta gehiegi zahartzearen ratioa (% 8,7) EAEko batez bestekoaren (% 21,7 eta % 10,9) eta Gipuzkoakoaren (% 21,6 eta % 10,6) azpitik daude.

3.1 grafikoa Zahartze eta Gain-Zahartze erakuslea Zarautz, Gipuzkoa eta EAE, 2017



Iturria: Udalmap

Zarauzko 75 urtetik gorako biztanleria handitzen jarraitzen du

2017an, Zarauzko 75 urte edo gehiagoko biztanleria 2.019 pertsonakoa zen. Igoera gizonetan zein emakumeetan izan da eta hala erakusten du honekin batera doakizuen grafikoak.

2011.urtean, 75 urte edo gehiago zituen biztanleria 1.903 pertsonera iristen zen, beraz azken 6 urteetan %6-a hazi da. Hazkuntza honetan, gizonak nabarmentzen dira, non %9,5-a hazi dira eta emakumezkoak berriz %3,9-a.

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.2 grafikoa 75 urte edo gehiago dituzten Zarautzeko biztanleen bilakaera, 2011-2017



Iturria: Behagi

3.2. Adinekoen populazioaren ezaugarritzea

Zarauzko 75 urtetik gorako populazioa 2.019 pertsonakoa da. Horietatik 804 gizonak dira eta 1.9127 emakumeak.

75 urte edo gehiagokoen artean, 90 urte edo gehiago dituzten adineko pertonak, 227 pertsonetara iristen da, hau da, multzo nabarmen eta garrantzitsua. Hauetatik %78,4 emakumeak dira.

3.1 taula 75 urte edo gehiagoko Zarauzko biztanleria adin multzoka 2017

	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
75-79 urte	336	378	714
80-84 urte	261	401	662
85-89 urte	158	258	416
90-94 urte	38	141	179
95 urte eta gehiago	11	37	48
GUZTIRA	**804**	**1.215**	**2.019**

Iturria: Eustat. Udal Erronda.

Adinekoen populazioa feminizatzen ari da, batez ere, adin handienekoenen artean

Sexukako banaketari dagokionez, emakumeen pisu handiagoa dute75 urte edo gehiagoko populazioan (% 56,4), baina nabarmenagoa da hori Gipuzkoan, % 57,4 baitira bertan.

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.3 grafikoa 75 urte edo gehiagoko Zarautz eta Gipuzkoako biztanleriaren distribuzioa sexuaren arabera (%, 2017)



Iturria: Udalmap

Adin-tarteetan aurrera egin ahala, emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz handiagoa da eta hala ikusten da honi atxikitako grafikoan ere.

3.4 grafikoa 75 urtetik gorako Zarauzko biztanleriaren distribuzioa sexu eta adin taldeka (%, 2017)



Iturria: Eustat. Udal Erronda.

Zarautzen, gain- zahartzearen tasa 8,67an dago. Datu altua izan arren, Gipuzkoako ratioaren azpitik dago.

75 urtetik gorako pertsona guztien artetik (2.019 pertsona) oso ehuneko handia dagokie emakumeei, % 60,1 hau da, adin horretara iristen diren bost pertsonatik hiru emakumeak dira.

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

Eskualdeari begiratuta, 75 urtetik gorako emakumeen ratioa % 61,3koa da. Zarauzko datuen gainetik dago hori eta lurraldeko ehunekoaren azpitik, zertxobait. Gipuzkoari dagozkion datuek erakusten dute 75 urtetik gorako populazioa 76.316 pertsonakoa dela eta Gipuzkoan, emakumeen pisua Zarautzen baino are handiagoa da, 75 urtetik gorako populazio osoaren % 61,9 osatzen baitute.

3.2 taula Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako zahartze eta gain-zahartzearen erakuslea 2017

	Zarautz	Urola Kosta	Gipuzkoa
Zahartze erakuslea: 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren %	19,4%	18,9%	21,6%
Gain-zahartze erakuslea: 75 urte edo gehiagoko biztanleriaren %	8,7%	7,0%	10,6%
75 urte edo gehiagoko biztanleria(Nº)	2.019	5.291	76.316
▪ 75 urte edo gehiagoko emakumeak	1.215	3.244	47.308
▪ 75 urte edo gehiagoko gizonak	804	2.047	29.008

Iturria: Udalmap

Mendekotasun mailak Gipuzkoakoak baino zertxobait baxuagoak dira Zarauzko adinekoen artean

Mendekotasunak dituzten adinekoen bilakaera, pertsona kopuruari begiratuta, goranzkoa da Zarautzen; izan ere, sei urtean (2011-2017), 524 pertsona izatetik 599 izatera iritsi da, hau da, %14,3a hazi da.

Hala ere, 65 urte edo gehiago dituzten herritarren kopuruak ere goraka egin du 6 urte hauetan, eta indar handiagoarekin gainera, hau da, 2011an 3.719 biztanle zeuden eta 2017an 4.485ra izatera iritsi dira, beraz, %20,6a hazi da. **Beraz, menpekotasun tasa 65 urte edo gehiago dituzten herritarren artean urte hauetan murriztu egin da, zehazki %5,2a**.

3.3 taula Zarautzeko menpeko biztanleen bilakaera, 2011-2017

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2011/2017 ▲%
Zarautzeko 65 urte edo gehiagoko biztanleria (zbk)	3.719	3.817	3.926	4.171	4.316	4.457	4.485	20,6%
Menpekotasuna duten 65 urte edo gehiagoko pertsonak(zbk))	524	526	541	525	547	566	599	14,3%
Menpekotasun tasa 65 urte edo gehiagoko pertsonen artean (%)	14,1%	13,8%	13,0%	12,6%	12,7%	12,7%	13,4%	-5,2%

Iturria: Behagi

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

Zarautzen, mendekotasuna dutenen populazioa, populazio osoaren % 3,3 da eta ratio hori eskualdeko (Urola Kosta % 3,9) eta Gipuzkoako (% 4,05) ratioaren azpitik dago.

Era berean, Zarautzen, 65 urtetik gorakoen mendekotasun-tasa (% 13,3) Gipuzkoakoa (% 14,4) baino txikiagoa da.

3.5 grafikoa Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako Biztanleria osoaren menpekotasun tasa eta 65 urte edo gehigo dituzten pertsonen menpekotasun tasa, 2017



Iturria: Udalmap

Ondorengo grafikoan dago jasota mendekotasuna duten 65 urtetik gorako herritarren populazioa sexuka eta ikusten da emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz handiagoa dela, nahiz eta azken urte hauetan pixka bat orekatu den.

3.6 grafikoa Zarauzko menpeko biztanleen bilakaera sexuka(%), 2011-2017



Iturria: Behagi

Zarautzen, emakumeen mendekotasun-tasa % 16koa da eta gizonena % 10ekoa. Emakumeen mendekotasun-tasa txikiagoa da Zarautzen Gipuzkoan (% 17,6) baino; baita eskualdean baino txikiagoa (% 19,4) ere.

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.7 grafikoa Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako menpekotasun tasa sexuka %, 2017



Iturria: Behagi

Beheko laburpen-taulan ikusten da Zarauzko adinekoen populazioari dagozkion datu nagusiak eskualdekoak eta Gipuzkoakoak baino positiboagoak direla; batez ere zahartze-tasak, gehiegizko zahartzearen tasak eta mendekotasuna duen populazioaren ehunekoa. Hiru aldagai horiek Gipuzkoakoaren eta eskualdekoaren azpitik daude Zarautzen. Aipagarria da, mendekotasuna duten 65 urtetik gorako Zarauzko emakumeen tasa Gipuzkoakoa eta, batez ere, eskualdekoa baino txikiagoa dela.

3.4 taula Zarautz, Urola Kosta eta Gipuzkoako adineko biztanleen inguruko adierazleen laburpena, 2017

	Zarautz		Urola Kosta		Gipuzkoa	
Zahartze erakuslea (%)	19,4%	●●●	18,9%	●●●	21,6%	●●●
Gain-zahartze erakuslea (%)	8,7%	●●●	7,0%	●●●	10,6%	●●●
75 urte edo gehiagoko emakumeen %	60,1%	●●●	61,3%	●●●	61,8%	●●●
Menpekotasuna duten biztanleen %	3,3%	●●●	3,9%	●●●	4,1%	●●●
65 urte edo gehiagoko menpeko gizonen tasa(%)	10,1%	●●●	12,0%	●●●	11,1%	●●●
65 urte edo gehiagoko menpeko emakumeen tasa(%)	15,9%	●●●	19,4%	●●●	17,6%	●●●

Iturria: Udalmap, Behagi

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.3. Mendekotasuna duten adinekoak

600 pertsonak baino gehiagok dute Zarautzen mendekotasunaren balorazioa

Beste datu interesgarri bat zera da, 75 urtetik gorako populazio osoa aintzat hartuta, zenbatek duten mendekotasunaren balorazioa edo zenbatek abiarazi dituzten balorazioa lortzeko izapideak.

Hala, Zarautzen erroldatutako 606 pertsonak mendekotasunaren balorazioa dutela zenbatu dugu. Horietatik % 70,8 emakumeak dira eta gainerakoak, % 29,2, gizonak.

Datua adin-tarteka aztertuta, 85-89 tartean dago mendekotasunaren balorazioen % handiena, % 32,2, hain zuzen. Bigarren lekuan dago 90-95 adin-tartea, balorazioen % 23,9 adin-tarte horretakoak dira eta hirugarren lekuan dago, berriz, 80-84 tartea, % 23,1eko ehunekoarekin.

79 urtetik beherakoen artean, adin-tarte gazteenean, % 15ek dute mendekotasunaren balorazioa. Horietatik % 27,5 gizonak dira eta % 72,5 emakumeak.

3.5 taula Menpekotasun balioespena duten pertsonak, adin multzoka eta sexuka

Adina	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
74-79 urte	66	15,4	25	14,1	91	15,0
80-84 urte	93	21,7	47	26,6	140	23,1
85-89 urte	127	29,6	68	38,4	195	32,2
90-95 urte	113	26,3	32	18,1	145	23,9
95 urte eta gehiago	30	7,0	5	2,8	35	5,8
Guztira	**429**	**100,0**	**177**	**100,0**	**606**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak

Mendekotasun mailari dagokionez, autonomia egoeran 75 urte edo gehiago dituzten eta mendekotasun baliospen bat duten Zarauzko populazioaren % 13,9-a hor kokatzen da. Eta hauetatik, lautik bat gizonak dira.

I. gradua, mendekoasun apala dutenak, Zarautzen mendekotasunaren balorazioa duten pertsonen % 34,5a daude gradu honetan. Horietatik % 65,5 emakumeak dira.

3. Zarauzko adinekoen biztanleria

3.6 taula 74 urtetik gorako pertsonak, menpekotasun maila sexuka

Menpekotasun maila	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	Zbk.	%	Zbk.
Autonomia Egora	63	14,7	21	11,9	84	13,9
Mendekotasun Apala	137	31,9	72	40,7	209	34,5
Mendekotsun Sakona	122	28,4	55	31,1	177	29,2
Mendekotasun Handia	107	24,9	29	16,4	136	22,4
Guztira	**429**	**100,0**	**177**	**100,0**	**606**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak

Gradurik larrienean, III. Gradua edo mendekotasun handian, Zarautzen mendekotasunaren baliospena dutenen % 22,4 daude eta talde horretan, emakumeak % 78,6 dira.

Adin-multzoei erreparatuz gero, 85 urtetik gorako pertsonetan, 199k dute II. eta III. graduko mendekotasuna eta adin horretako populazioaren % 60,6 osatzen dute.

85 urtetik beherako populazioari dagokionez, % 41ek II. eta III. graduko mendekotasuna dute.

3.8 grafikoa Biztanleriaren menpekotasun maila adinaren arabera



Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.1. Bakarrik erroldatutako populazioaren kuantifikazioa

75 urtetik gorako Zarauzko 600 pertsona inguru bizi dira bakarrik; 75 urtetik gorakoen artean, 4tik 1

Zarauzko udal-erroldako datuak aintzat hartuta, 2018ko hasieran, 75 urtetik gorako 558 pertsona zeuden etxean bakarrik erroldatuta; hau da, 75 urtetik gorako populazioaren % 27.

Bakarrik erroldatuta dauden 75 urtetik gorako pertsona guztietatik % 76 emakumeak dira eta % 24 gizonak. Etxebizitzan bakarrik erroldatuta daudenen artean askoz gehiago dira emakumeak gizonak baino. Zehazki, 75 urtetik gorako emakumeen % 35 bakarrik bizi dira eta gizonetan % 11 dira hala bizi direnak.

4.1 taula Zarautzen soilik erroldatutako 75 urtetik gorakoen biztanleria

Sexo	Nº	%	75 urtetik gorako biz-tanleriarekiko %
Bakarrik bizi diren 75 urte edo gehiagoko emakumeen etxebizitzak	424	76,0%	34,9%
Bakarrik bizi diren 75 urte edo gehiagoko gizonen etxebizitzak	134	24,0%	11,0%
Bakarrik dauden adineko pertsonak guztira	**558**	**100,0%**	**27,6%**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako populazioaren batez besteko adina 83 urtekoa da

Bakarrik bizi diren adinekoen batez besteko adina 82,8 urtekoa da eta batez besteko hori handixeagoa da Zarautzen bakarrik bizi diren emakumeetan (83,12 urte) gizonetan baino (81,72 urte). Beraz, emakumeen bizitza-luzera eta bakarrik bizitzeko autonomia gizonena baino handixeagoa da.

Adin-tarteka, Zarautzen bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsona guztiak aintzat hartuta, gizonetan 75-79 multzoa eta 80-84 multzoak dira handienak pertsona kopuruari begiratuta.

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

Emakumeetan, adin-tarte horietan dago bakarrik bizi den emakume gehien, baina 90 urtetik gora izan eta bakarrik bizi diren emakumeen pisua % 12,8koa da eta gizonetan, adin-tarte horrek pisu txikiagoa du, % 8,2.

4.2 taula sexuka. Bakarrik bizi diren adineko biztanleriaren distribuzio adin multzo eta

Adina	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	Zbk.	%	Zbk.
75-79 urte	122	28,8	53	39,6	175	31,4
80- 84 urte	139	32,8	42	31,3	181	32,4
85- 89 urte	109	25,7	28	20,9	137	24,6
90- 95 urte	44	10,4	10	7,5	54	9,7
95 urte eta gehiago	10	2,4	1	0,7	11	2,0
Guztira	**424**	**100,0**	**134**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

4.2. Bakarrik bizi diren herritarrak non bizi diren

Kokapenari begiratuta, bakarrik erroldatuta dauden adinekoak zer barruti eta sekziotan bizi diren aztertuta, ikusi dugu 1. barrutian 145 adineko (% 26,0) bizi direla eta 2. barrutian, sekzio gehiago dituen barrutian hain zuzen, guztira 413 pertsona (gainerako % 74,0ak).

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.3 taula Bakarrik bizi diren Zarauzko adineko biztanleria Barrutia eta sekzioka

Barrutia eta sekzioa		Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
		Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
1go Barrutia Alde zaharra	S1-D1 Foruen-Herrikobarra	55	13,0	12	9,0	67	12,0
	S2-D1 Torreluzea	40	9,4	7	5,2	47	8,4
	S3-D1 Salegi-Zigordia	28	6,6	3	2,2	31	5,6
2. Barrutia Gainontzeko zonaldeak	S1-D2 Mendilauta	44	10,4	16	11,9	60	10,8
	S2-D2 Zelaieta	33	7,8	21	15,7	54	9,7
	S3-D2 Zelaiondo	34	8,0	10	7,5	44	7,9
	S4-D2 Itsasmendi	24	5,7	5	3,7	29	5,2
	S5-D2 Azken Portu	45	10,6	9	6,7	54	9,7
	S6-D2 Galtzadaberri	23	5,4	6	4,5	29	5,2
	S7-D2 Landa-Eremua	18	4,2	10	7,5	28	5,0
	S8-D2 Talaimendi	36	8,5	16	11,9	52	9,3
	S9-D2 Arizbatalde	11	2,6	5	3,7	16	2,9
	S10-D2 San Pelaio Iñurritza	17	4,0	10	7,5	27	4,8
	S11-D2 Salbide	16	3,8	4	3,0	20	3,6
Guztira		**424**	**100,0**	**134**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Ondorengo mapan, Zarautzen bizi direnenen barruti eta sekzioak jasotzen dira:

4.1grafikoa Zarautzeko Mapa, Barruti eta Sekzioen banaketarekin

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa



Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Gainera, beheko mapan sekziokako banaketa adierazi dugu eta bakarrik erroldatuta dauden adinekoen ehuneko handiena duten sekzioak bi barrutietako 1. sekzioak dira (bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako udalerriko pertsonen % 10 baino gehiago). Hau da, Foruen-Herrikobarra eta Mendilaut zonaldeak.

75 urtetik gorako populazioaren % handia duten sekzioak, % handiena duten 1. sekzioen atzetik, honako hauek dira: 2. barrutiko 2., 5. eta 8. sekzioak. Horietan, 75 urtetik gorako populazioa, populazio osoarekiko, % 8,5-10 da.

Sekzio gazteenak 2. barrutiko 9.a, 10.a eta 11.a dira. Hor daude etxebizitza berrienak eta hedapen-eremu berrienak (% 4 baino gutxiago). Sekzio hauek, Aritzbatalde, San Pelaio-Iñurritza eta Salbide zonaldeekin bat datozte.

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.2 grafikoa Bakarrik bizi direnen 75 urte edo gehaigoko biztanleen kokapena barruti eta sekzioka (%)



Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Sexuari dagokionez, 1. Barrutian Alde zaharra, proportzioan, emakumeak gizonak baino gehiago dira (% 29,0 dira emakumeak eta gizonak % 16,4) eta 2. Barrutian, udalerriko gainontzeko zonaldeetan, berriz, aurkakoa gertatzen da (% 83,6 gizonak eta % 71,0 emakumeak).

4.4 taula Bakarrik bizi den adineko biztanleriaren banaketa barrutia eta sexuaren arabera

Kokapena	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
1.go Barrutia Aldezaharra	123	29,0	22	16,4	145	26,0
2. Barrutia Gainontzeko zonaldeak	301	71,0	112	83,6	413	74,0
Guztira	**424**	**100,0**	**134**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.3. Erabiltzaileak eta erabiltzaileak ez direnak

Bakarrik bizi den populazioaren erdia baino gehiago Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzailea da

Bakarrik erroldatuta dauden 75 urtetik gorako populazioan aztertu dugu Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile ote diren edo ez. Analisiak erakusten du 75 urtetik gora izan eta bakarrik bizi diren herritarren % 54 Zarauzko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile direla eta gainerako % 46a ez dela erabiltzaile.

Adin-tarteka, 95 urtetiko gorakoen artean, % 81,8 erabiltzaileak dira eta % 18,2, hamarretik ia bi, ez daude erabiltzaile gisa erregistratuta. 85-89 adin-tartean, % 63,5 erabiltzaileak dira eta % 36,5 oraindik ez.

4.5 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa adinaren arabera

Adina	Erabiltzaileak		Erabiltzaileak ez direnak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
75-79 urte	64	21,3	111	43,2	175	31,4
80- 84 urte	99	32,9	82	31,9	181	32,4
85- 89 urte	87	28,9	50	19,5	137	24,6
90- 95 urte	42	13,9	12	4,7	54	9,7
95 urte eta gehiago	9	3,0	2	0,7	11	2,0
Guztira	**301**	**100,0**	**257**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Erabiltzaile nahiz ez-erabiltzaile diren emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa den arren, ehunekoei begiratuta, erabiltzaile ez diren pertsonen artean, gizonek erabiltzaileen artean dutena (% 17,6) baino pisu erlatibo handiagoa dute, % 31,5.

4.6 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa sexuaren arabera

Sexua	Erabiltzaileak		Erabiltzaileak ez direnak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
Emakumezkoak	248	82,4	176	68,5	424	76,0
Gizonezkoak	53	17,6	81	31,5	134	24,0
Guztira	**301**	**100,0**	**257**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

Nahiko jokabide ohikoa da, kolektibo horri gehiago kostatzen baitzaio laguntza eskatzea eta are gehiago bakarrik bizi diren gizonei dagokienez.

Kokapenari dagokionez, erabiltzaile gehienak 2. Barrutian, hau da, udalerriko gainontzeko zonaldeetan daudela ikusi dugu, barruti horrek hedapen geografiko handia baitu. Hala ere, erabiltzaileen artean, 1. barrutikoak % 28,6 dira eta erabiltzaile ez direnak, berriz, % 23.

4.7 taula Erabiltzaile eta ez-erabiltzaile diren adineko biztanleriaren banaketa barrutiaren arabera

Kokapena	Erabiltzaileak		Erabiltzaileak ez direnak		Guztira	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
1go Barrutia Alde zaharra	86	28,6	58	22,6	144	25,8
2. Barrutia Gainontze-ko zonaldeak	215	71,4	199	77,4	414	74,2
Guztira	**301**	**100,0**	**257**	**100,0**	**558**	**100,0**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Kokapen geografikoari dagokionez, ikusi dugu erabiltzaile ez diren pertsonen kopuru handi bat 2. barrutiko 1. eta 3. sekzioetan daudela, hau da Mendilauta eta Zelai-ondo zonaldeetan. Hor, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako populazioaren % 60 baino gehiago ez dira erabiltzaileak

Era berean, erabiltzaile ez direnen ehuneko (% 50-60) handia dute barruti berdineko 6., 8., 9. eta 10. Sekzioek, hau da Galtzadaberri, Talaimendi, Aritzbatalde eta San Pelaio-Iñurritza zonaldeekin bat datoztenak.

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.3 grafikoa Erabiltzaileak ez diren Zarautzeko biztanleriaren banaketa barruti eta sekzioaren arabera (%)



Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

Erabiltzaileen artean (43 pertsona), kopuru handienak 1. barrutiko 1. sekzioan daude: MAlde Zaharrean, Foruen-Herrikobarra zonaldean.

Hala ere, portzentaje erlatiboari erreparatzen badiogu sekzio bakoitzean bizi direnak kontuan hartuta, erabiltzaileen % handiena duen sekzioa 2. barrutiko 11. sekzioa da. Sekzio horretan bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoen % 75 Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak dira. Sekzio hau, Salbide zonaldearekin bat dator.

Atzetik, 2. barrutiko 2. Sekzioa dago (bertan bizi direnetatik erabiltzaileak % 64,8), Zelaietako zonaldearekin bat datorrena.

4. Zarautzen bakarrik bizi den adineko biztanleriaren kuantifikazioa

4.8 taula Bakarrik bizi diren Zarauzko adineko biztanleriaren artean erabiltzaile eta erabiltzaile ez diren pertsonen kokapena barruti eta sekzioka.

Barruti eta sekzioa		Erabiltzaileak	Erabiltzaileak ez direnak	Guztira	
		%	Zbk.	Zbk.	%
1go Barrutia Alde zaharra	S1-D1 Foruen-Herrikobarra	43	24	67	12,0%
	S2-D1 Torreluzea	30	17	47	8,4%
	S3-D1 Salegi-Zigordia	13	18	31	5,6%
2. Barrutia Gainontzeko zonaldeak	S1-D2 Mendilauta	20	40	60	10,8%
	S2-D2 Zelaieta	35	19	54	9,7%
	S3-D2 Zelaiondo	28	16	44	7,9%
	S4-D2 Itsasmendi	15	14	29	5,2%
	S5-D2 Azken Portu	28	26	54	9,7%
	S6-D2 Galtzadaberri	14	15	29	5,2%
	S7-D2 Landa-Eremua	16	12	28	5,0%
	S8-D2 Talaimendi	24	28	52	9,3%
	S9-D2 Arizbatalde	7	9	16	2,9%
	S10-D2 San Pelaio Iñurritza	13	14	27	4,8%
	S11-D2 Salbide	15	5	20	3,6%
Guztira		**301**	**257**	**558**	**100,0%**

Iturria: Zarauzko Gizarte Zerbitzuak 2018

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.1. Elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak

Hasteko, eta inkestaren emaitzetan murgildu aurretik, aipagarria da azterlanean parte hartu dutenen % 77 emakumeak izan direla eta gainerako % 23a gizonak. Adin-tarteari dagokionez, % 24k 75-79 urte dituzte; % 41ek, 80-85; % 27k, 86-91, eta gainerako % 8ak, berriz, 92 urte edo gehiago.

Egoera zibilari dagokionez, elkarrizketatutako pertsonen % 73 alargunak dira; % 14, ezkongabeak eta % 3 bananduta edo dibortziatuta daude. Elkarrizketatutakoetatik % 9,5 dira ezkonduak.

Eta familia motari begiratuta, % 77 bakarrik bizi dira eta % 8 bikotekidearekin. Elkarrizketatutakoen % 10ek adierazi dute zuzeneko familiako batekin bizi direla nahiz eta bakarrik erroldatuta egon. 75 urtetik gorakoen % 3,3k adierazi dute enplegatu batekin bizi direla.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.1 grafikoa Elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoak



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5.2. Egoera kognitiboa eta osasun-egoera

5.2.1. Osasun-egoeraren balorazioa

Hasteko, adinekoei galdetu diegu ea zer pertzepzio duten haien osasun-egoeraz. Elkarrizketatutakoen artetik 75 urte edo gehiago dituzten pertsona gehienek uste dute osasun ona (% 47) edo oso ona (% 14) dutela. Hala moduzko osasuna dutela adierazi dute % 29k eta % 10,7k, berriz, esan dute ez dutela osasun ona.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.1 taula Osasun egoeraren batez besteko balorazioa

Zure osasun egoera nolakoa dela esango zenuke.....?	%	Banaketa
Oso ona	13,7%	
Ona	46,9%	
Erdizkakoa	28,6%	
Txarra	9,5%	
Oso txarra	1,2%	
Guztira	**100,0%**	
Batez- besteko puntuazioa (0-10 indizea)	**6,56**	

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

0tik 10erako eskalan, oso txarretik oso onera, osasunak, batez beste, 6,6 puntu eskuratu ditu bakarrik bizi diren adinekoen artean. Emakumeek baino pertzepzio hobea dute gizonek osasunaren inguruan eta alboan norbait dutenak eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaile ez direnak dira batez besteko puntuazio okerrenak dituztenak.

5.2 grafikoa Osasun egoeraren batez besteko balorazioa

Indice 0-10	Osasun egoeraren batez besteko balorazioa
Sexua	
Emakumezkoa	6,49
Gizonezkoa	6,79
Adina	
75-79 urte	6,81
80-85 urte	6,52
92 urte edo gorakoak	6,43
Familia mota	
Bakarrik bizi da	6,69
Norbaitekin bizi da	6,12
Gizarte zerbitzuen erabiltzailea	
Erabiltzailea	6,12
Ez da erabiltzailea	6,00
Guztira	**6,56**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Osasun-egoera sakonago aztertuta ikusi dugu bakarrik erroldatuta dauden 75 urte edo gehiago dituzten pertsonetatik bat, 6 hilean behin osasun-zentroa joaten dela eta beste heren bat 3 hilean behin.

% 25 hilean behin edo maizago joaten dira. Hala ere, aipagarria da elkarrizketatu ditugun 75 urte edo gehiagoko pertsonen % 9k adierazi duela azken urtean ez duela osasun-zerbitzuetara jo. Horien proportzioa % 11koa da emakumeetan eta % 4 gizonetan.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.2 taula Bisitaren maiztasuna osasun zerbitzura

Azken urtean, zein da osasun zerbitzuetara (erizaina, familia medikua, mediku especialista, ospitalera …) joan zaren maiztasuna? %	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
Astean behin	1,6%	0,0%	1,2%
15ean behin	4,9%	5,4%	5,0%
Hilean behin	18,4%	19,6%	18,7%
3 hilean behin	28,6%	37,5%	30,7%
6 hilean behin	35,7%	33,9%	35,3%
Ez naiz joan	10,8%	3,6%	9,1%
GUZTIRA	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Elkarrizketatutakoen gehiengo handi batek azaldu du ez duela zailtasunik sendagaiak kudeatzeko eta antolatzeko, baina % 16k nabarmendu dute laguntza jasotzen dutelako moldatzen dela ondo eta % 2k aitortzen dute zailtasunak dituztela. Zailtasunak edo laguntza-beharrak pixka bat handiagoak dira gizonen artean.

5.3 grafikoa Hartu beharreko botikak antolatzeko zailtasunak



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Osasunaren ahultasunari lotutako adierazleei dagokienez, honako emaitza hauek atera ditugu inkestatik:

- 75 urte edo gehiagkoen artean 4 pertsonatik 1ek (% 26) adierazi du ez duela inolako mugarik eta erdiek baino gehiagok baieztatu dute gaixotasun kronikoren bat dutela.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

- Elkarrizketatutakoen % 15i iruditzen zaie maiz izaten dituztela bakarrik moldatzea eragozten dieten osasun-arazoak; gizonen % 18k uste dute hori eta emakumeen % 15ek. Adinekoen % 9k aipatu dute osasuna dela-eta, ezin direla kalera atera.
- Ikusmenari lotutako zailtasunak (ikusmenaren-urritasun larria edo itsutasuna) dituzte elkarrizketatutakoen % 8k eta % 7k adierazi dute ikusmenari lotutako zailtasunak izaten dituztela eguneroko lanetan. Ehuneko % 11koa da gizonetan.
- Udalerriko adinekoen % 20k adierazi dute entzuteko zailtasunak dituztela eta % 11k esan dute zailtasun handiak dituztela elkarrizketetan gaizki entzuten dutelako. Gizonen % 13k adierazi dute hori.
- Zailtasun fisikoei dagokienez, adinekoen % 32k aipatu dute zailtasun fisiko arina dutela, makila edo makulua erabiltzen dutela. Eta zailtasun fisiko larria (gurpildun aulkia erabiltzen dutenena) % 10ek dute (gizonen % 11k eta emakumeen % 5,4k).
- 75 urte edo gehiago dituzten Zarauzko herritarren % 15k baieztatu du ospitaleratuta egon dela azken urtean (% 2,5 behin baino gehiagotan) eta % 16k adierazi dute etxeko osasun-laguntza behar izan dutela. % 14 behin erori da azken urtean eta % 10 behin baino gehiagotan.
- Zarautzen ez dago otordu berorik ez duela egiten adierazi duen adineko pertsonarik.

5.4 grafikoa Osasun arazoetatik eratorritako mugaketen existentzia



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.3 taula Osasunarekin erlazionaturiko hauskortasun adierazleak

% afirmativo	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
Ospitalizatua egon zara?			
▪ Bai, behin	12,4%	16,1%	13,3%
▪ Bai, behin baino gehiagotan	2,2%	3,6%	2,5%
Etxeko arreta behar izan: Medikua edo Erizaina?			
▪ Bai, behin	7,0%	3,6%	6,2%
▪ Bai, behin baino gehiagotan	11,9%	3,6%	10,0%
Erori zara eta altxatzeko zailtasunak izan dituzu?			
▪ Bai, behin	14,6%	12,5%	14,1%
▪ Bai, behin baino gehiagotan	7,6%	5,4%	7,1%
Zure kabuz baliatzeko osasun arazoak sarri izaten dituzu?	14,6%	17,9%	15,4%
Zure osasun egoera dela eta ez duzu kalera ateratzeko gaitasunik?	9,2%	7,1%	8,7%
Ikusmen zailtasuna duzu ohikoekintzak burutzeko?	5,9%	10,7%	7,1%
Entzumen zailtasunek elkarrizketa jarraitzeko arazorik dizute?	10,3%	12,5%	10,8%
Astean bitan edo gehiagotan ez duzu jaten janari berorik?	0,0%	0,0%	0,0%

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5.2.2. Eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna

Zarauzko adinekoen % 69k uste dute ondo edo oso ondo dabiltzala eguneroko jarduerak eta lanak egiteko gaitasunean. % 21ek honela baloratu dute haien gaitasuna eguneroko gauzetarako: ez ona, ez txarra.

Bakarrik erroldatuta dauden 75 urte edo gehiago dituzten pertsonen % 9,6k adierazi dute gaizki edo oso gaizki daudela eguneroko jarduerak egiteko gaitasunean.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.4 taula Egunerkotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak egiteko gaitasuna

Orokorrean, nola baloratzen duzu eguneroko bizitzan ohiko jarduerak egiteko duzun gaitasuna?	%
Oso ona	10,4%
Ona	59,2%
Erdizkakoa	20,8%
Txarra	7,5%
Oso txarra	2,1%
Guztira	**100,0%**
Batez- besteko puntuazioa (0-10 indizea)	**6,7**

Banaketa



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

0tik 10erako eskalan, batere gaitasunik ez izatetik gaitasun osoa izatera, adinekoek, batez beste, 6,7 puntu eman dituzte.

Eguneroko jarduerak egiteko gaitasunari lotuta, gizonen pertzepzioa emakumeena baino zertxobait hobea da. Norbaitekin bizi diren pertsonak eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaile direnak dira gaitasun txikiagoa dutenak, mendekotasun maila handiagoak dituztelako.

5.5 grafikoa Egunerokotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak gauzatzeko gaitasunaren batazbestekoa

0-10 indizea	Ohiko jarduerak eta jarduerak egiteko gaitasunaren batez besteko balorazioa
Sexua	
Emakumezkoa	6,66
Gizonezkoa	6,88
Adina	
75-79 urte	7,33
80-85 urte	6,79
85 urtetik gora	6,17
Familia mota	
Bakarrik bizi da	6,98
Beste norbaitekin	5,80
Gizarte zerbitzuen erabiltzaile	
Erabiltzaile	6,18
Ez da erabiltzaile	7,64
Guztira	**6,71**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

Honekin batera doazen tauletan daude jasota, halaber, bakarrik bizi ziren Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten pertsonek eguneroko jarduerak egiteko dituzten zailtasun mailak. Aipagarriak dira norbere burua garbitzeko edo apaintzeko hautemandako zailtasunak. Kezkagarriak dira, horiez gain,etxetik kanpo mugitzeko eta eskailerak igo eta jaisteko dituzten mendekotasun maila altuak. Gehiago gertatzen da hori emakumeen artean gizonen artean baino.

5.5 taula Egunerokotasuneko ekintzak eta ohiko jarduerak egiteko gaitasuna

%	Zailtasunik gabe (independientea)	Zailtasun apur batekin (laguntzarekin hobe)	Zailtasun handiarekin (mendekotasunarekin)
Jatea eta edatea	98,8%	1,3%	0,0%
Norbera garbitzea	82,5%	**11,7%**	5,8%
Norbera janztea-Jantzi edo erantzi	89,6%	6,3%	4,2%
Bestelako gorputz zaintzak	83,3%	**11,7%**	5,0%
Mikzioa/sabel-hustea kontrolatzea, komunera joan	94,2%	3,3%	2,5%
Etxe barruan 50 metro mugitu	93,7%	3,3%	2,9%
Etxetik kanpo mugitzea (Nekatu gabe, 400 metro oinez egin)	66,7%	**22,1%**	**11,3%**
Eskailerak jaitsi eta igo	67,5%	**17,7%**	**14,8%**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5.6 grafikoa Egunerokotasuneko ekintzak egiteko zailtasun handia duen biztanleria



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Eguneroko bizimoduko jarduera instrumentalei erreparatuta, zailtasun mailak altuak dira zenbait jardueratan: erosketak egitea, etxeko lanak egitea, garraiobide publikoa erabiltzea eta ekonomia eta lege arloko kudeaketa-lanak egitea.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.6 taula Egunerokotasuneko ekintza instrumentalak egiteko gaitasuna

	Zailtasunik gabe (independientea)	Zailtasun apur batekin (laguntzarekin hobe)	Zailtasun handiarekin (mendekotasunarekin)
Telefonoa erabili	89,1%	4,6%	6,3%
Erosketak egin	50,8%	**25,8%**	**23,3%**
Janaria prestatu	69,5%	9,2%	21,3%
Etxeko lanak (garbiketa, bazkaria)	28,0%	**45,2%**	**26,8%**
Arropa garbitu	73,2%	8,4%	18,4%
Garraio erabiltzea (autobusa, trena, taxia..)	56,5%	**23,4%**	**20,1%**
Diruarekin maneiatzeko gaitasuna	90,4%	5,0%	4,6%
Kudeaketa ekonomiko edo legalak egitea	43,5%	**23,0%**	**33,5%**
Erabakiak hartzea	72,0%	**22,6%**	5,4%

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018..

Bakarrik bizi diren gizonek askoz zailtasun handiagoa dute, adibidez, otorduak prestatzeko, etxeko garbiketak egiteko edo arropa garbitzeko. Emakumeek, aldiz, zailtasun handiagoa dute ekonomia eta lege arloko kudeaketa-lanak egiteko.

5.7 grafikoa Egunerokotasuneko ekintza instrumentalak burutzeko gaitasuna

Zailtasun handiakin	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak		
Telefonoa erabili	4,9%	10,9%
Erosketak egin	23,9%	21,4%
Janaria prestatu	15,8%	39,3%
Etxeko lanak (garbiketa, bazkaria)	24,6%	33,9%
Arropa garbitu	14,2%	32,1%
Garraio erabiltzea (autobusa, trena, taxia..)	23,0%	10,7%
Diruarekin maneiatzeko gaitasuna	6,0%	0,0%
Kudeaketa ekonomiko edo legalak egitea	35,0%	28,6%
Erabakiak hartzea	6,0%	3,6%

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

5.3. Harremanei dagokien egoera

5.3.1. Harreman pertsonalak

Bakarrik erroldatuta dauden Zarauzko adinekoek dituzten harreman pertsonalei arreta jarrita, ikusi dugu gehienek eguneroko harremanak dituztela gertueneko familiakoekin (% 82); hala nola seme-alabekin, senideekin eta bilobekin. Hain gertukoak ez diren familiakoekin (osaba-izebak, lehengusuak, ilobak) duten harremanak maiztasun txikiagoa du. Harreman horiek astean behin edo hilean behin dituztela aipatu dute gehien.

5.7 taula Adineko pertsonen harreman pertsonalen aldizkakotasuna

	Egunero	Astean behin	Hama-bostean behin	Hilean behin	Bai, baina ez du harremanik	Ez du holako-rik
Hurbileko familia	82,4%	10,5%	2,1%	0,8%	**1,3%**	**2,9%**
Familia zabala	12,5%	28,3%	15,8%	26,3%	**13,8%**	**3,3%**
Lagunak	42,3%	29,3%	3,8%	5,0%	**6,3%**	**13,4%**
Bizilagunak	50,2%	37,7%	4,6%	0,4%	**5,0%**	**2,1%**

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Adiskidetasun-harremanei eta bizilagunekiko harremanei lotuta, gehien aipatu duten maiztasuna eguneroko da. Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoen % 4k adierazi dute ez dutela gertuko familiakorik edo ez dutela haiekin harremanik eta % 17k ez du urrunagoko familiakorik edo ez du haiekin harremanik.

Adineko gizonek, emakumeekin alderatuta, harreman maila apalagoak dituzte.

5.8 grafikoa Harreman sozialik ez duen adineko bizntalegoa



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

Azterlanean xehe aztertu dugu, gainera, babes pertsonala eta honako emaitza hauek jaso ditugu:

- Adineko gehienei (% 93ri) iruditzen zaie familiakoek behar adinako babesa ematen dietela.
- Ez dutela behar besteko babesik jasotzen iruditzen zaienen ehunekoa % 7koa da adinekoen artean eta gehiago dira gizonak (% 14).
- Familiako bizikidetza-arazoetan ez dago zifra esangarririk.

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

- Elkarrizketatutakoen % 17k baieztatu dute sarri behar izaten dutela lagunduko dien norbaiten beharra.
- Adinekoen % 2k aitortu dute ez dutela inor laguntza behar dutenerako. Gizonen % 3,6k aitortu dute hori.
- Oso gutxik zaintzen dituzte mendekotasuna dutenak edo adingabeak.

5.8 taula Harreman pertsonalekin erlazionatutako hauskortasun adierazleak

% baiezkoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Familia laguntza nahikoa duzu??			
• Bai	95,6%	85,7%	93,3%
• Ez	4,4%	14,3%	6,7%
Ba al duzu bizikidetza arazorik?	0,0%	1,8%	0,4%
Sarritan laguntza-laguntzaile bat behar duzu?	16,5%	17,9%	16,8%
Ez duzu laguntza eske joateko pertsonarik	1,6%	3,6%	2,1%
Adineko pertsona edo mendekotasuna duen pertsona baten zaintzaile zara?	0,5%	1,8%	0,8%
Adin txikiko norbaiten zaintzaile zara, bilobak...?	1,6%	5,4%	2,5%

Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5.9 grafikoa Behar duenean, nork laguntzen dio?



Iturria: Zarauzko 75 urte edo gehiago dituzten biztanleei egindako inkesta, 2018.

5.3.2. Parte-hartzea gizartean eta komunitatean

Gizartean eta komunitatean zer jarduera egiten dituzten eta zenbateraino parte hartzen duten ere kontsultatu diegu adinekoei:

5. Bakarrik bizi diren adinekoen ezaugarriak

- 75 urtetiko gorakoen 10etik 8k adierazi dute egunero ateratzen direla etxetik. % 2,5ek adierazi dute ez direla inoiz kalera ateratzen.
- Adinekoen % 41ek aipatu dute egunero ateratzen direla enkarguak egitera eta % 36k dio astean behin ateratzen direla. Kolektiboko % 20k adierazi dute ez direla inoiz enkarguak egitera joaten.
